

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko apirilak 9 / III. urtea / 70. zenbakia

Metropoli forala



FELIPE RIUS

Gero eta gutxiago ulertzen dut zergatik dieten batzuk horren beldur handia fikziozko pelikulei, telebistako serie dramatikoari edo aktorearen bat larrugorritan azaltzen den antzerki obrei. Moralistek eta ohitura onen defenda-tzaileek dokumentalez eta informatiboez kezkatu beharko lukete, eta nik umeak izanen banitu siestara bidaliko nituzke telediarioen orduan.

Ez dut esanen pelikulek hunkitzen ez nautenik edo nire barneko pasio izkutuak berpizteko ahalmenik ez dutenik. Hala ere, egun hauetan ikusi dudana eszena gogorrenetakoak telebista estatalak ikusle gehien dauden momentuan eskeinitako batzuk ziren. Agure batek bere bakardadeari aurre egiteko kasete bat aurrean zuela hitz egiten zuen eta gero erreproduzitu egiten zuen monologoa elkarrizketa baten ilusioa sortzeko. Amona batzuk beren bizimodu trajikoak azaldu zituzten programa berean eta agian Abigailen pitukeriekin negar egiten duen jende berbera oihuka eskatzen ari zen afari erreportai aspergarria noiz bukatuko zen zai, ondoren futbola baitzetorren, jakina. Denaren, umeak ez omen daude horren deformaturik eta ez nintzake harrituko holako programa batzuk ikusiz gero bost urterekin alkoholikoak bihurtuko balira.

Saio hauek beharrezkoak dira, jakina, baina errealitatea eta fikzioa nahasten diren momentu hauetan lehenengoak gero eta protagonismo gutxiago du, nahiz eta une luzidonetan estali arren eguneroko bizitza gure aurrean izanen dugula ulertu. Kulebroia bukatzen denean telebista itzaltzen badugu ere, kajaren barruan gelditu diren Sarajevoko bonben oihartzuna somatuko dugu egongelari, eta egunen batean ohartuko gara Italiako Senadoko debateak ez direla situazio komedia bat. Bake hotzaren garaian gure herrietan seguru gaude la sinestarazi digute, eta kasualitatez hondamena iritsiko balitz, hozkailura hurbildu, zerbeza bat hartu eta leihotik begiratu genuke produktu berri baten promozio kanpaina delakoa.

Anaia eta bere emaztea afariren batera ateratzen direnean, lau eta bost urtetako umeak uzten dizkirate. Oheratu beharrean, musika entzuten dugu telediararioaren orduan. Gero pokerrean aritzen gara —hamar mila pezeta zor dizkiet dagoeneko— eta goizaldean 'El silencio de los corredores' edo antzeko pelikulak ikusten ditugu. Anaia dioenez, gauero etorri nahi dute nire etxera nahiz eta lo gutxi egin, ipui politikak kontatzen omen dizkiet eta beren etxean beldurtu egiten dira informatiboaren aurrean. Aingerutxoak.



Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez eta Amaia Telletxea.

OSKAR MONTERO

Hiru bertsolari Bortzirietako

bigarren eta hirugarren gelditzea. Estitxu Arozena, Xabier Silveira, Amaia Telletxea dagoeneko ezagunak dira Nafarroan ezezik Euskal Herri osoko

bertsozaleen artean. Txapelketaz eta hainbat gaiz hitz egiteko bildu genituen Lesakan, oraindik txapelketaren zurrumbiltoa ahaztu gabe zeudela, Estitxu Arozena, Amaia Telletxea eta Estitxu Fernandez. Gazteak diren aldetik, ez zioten muzin egin inolako gairi, eta lehiaren alde makurrak ezagututa ere, pozik eta itxaropentsu azaldu ziren hurrengo urteei begira. Biharko bertsolaritzak baditu molde ederrak.

Hiru dira, baina gehiago izan litezke, eta gutxiago ere. Bi lesakar eta arantzar bat, igandean bukatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartu izandakoak hiruak. Eta bikain egin. Iaz sorpresa ederra eman zuten Estitxu Arozena eta Xabier Silveirak, eta aurten beste lauk eman diete segida. Bortzirietako Bertso Eskola-koak dira denak, bertsolarien harrobia, ezin uka. Arantzan bertsolari izatea milagro ez zela zioen joan den astean kazetari batek. Eta hala liteke. Baina Bortzirietatik, aurten, 16 eta 18 urte bitarteko sei bertsolari gazte atera, eta horietariko hiru finalera heltzea, ez da hain normala. Are gutxiago


Gure aukerak

Irabiako uharka

Irabiako uharka izaten da Nafarroako toki aukeratuenetakoa egun eskasetako oporretara joateko, hau da opor txikiak igarotzeko. Aste Santuko egunotan, beraz, jende franko arituko da bueltaka paraje honetan, Aezkoako mendiak eta Iratiz inguratutik. Bertan ibilbide laburra egitea proposatzen dizuegu, beraz, haraino hurbilduko zaretenoi.

La Cuestion izeneko mendian arituko gara, eta ikusmirak paregabeak dira. Ez dago ez txabolarik, ezta, batzutan, biderik ere, eta topografiari erreparatu behar zaio orientatzeko. Egund argitsuan ez dago arazorik, baina lainoa sartzen bada, jeistea nahikoa izango da pistaren bat aurkitzeko.

Orbaitzetatik zein Otsagitik joan daiteke uharkaraino, nahiz eta pistaren egoera kotxeendako oso gomendagarria ez izan. Zuloz beteta eta lurra altxatuta, txirrindulaz edo oinez duzue modurik egokiena joateko. Uharka inguratu ondoren, goiko muturrean 'Aezkoako mendiak: Pista forestal a Contrario' iragartzen duen kartela ikusko duzue, eta hortik ateratzen da ibilbidea. Ondoren pista utzi beharra dago, ibaia zeharkatu eta eskuinaldeko ertzetik doan pista hartu, bi errekek batu arte. Hor ikusiko dugu sendra bat, ez oso markaturik,



Orbaitzetatik zein Otsagitik joan daiteke uharkaraino.

gora doana. Goian aurkituko dugu beste bidea, eta kaskoari jarraituz, lepo batera helduko gara. Bidea utzi beharra dago orduan, eta bide markaturik gabe, beste lepo batera helduko gara. Hor aurkituko dugu bi bide elkartzen diren tokia, eta hortik eskuinera, Lizardoiako aterberaino.

Eskuinaldean ikus dezakegu

bertakoek 'El parque' deitzen duten parajea, jatorrizko pagadihariztiaren adibide garbiena. Hau da, Aztaparretako (Belagua) inguru batekin batera, Nafarroan oraindik ukitu gabe gelditzen den baso dermio bakarra. Hortik behera, Contrarioko pista aurkitu arte, hasierako punturaino eramango gaituena.

ERAKUSKETAK



Juan Carlos Ruiz de Azua pintorearen erakusketa ikusgai dago Iruñean, Aurrezki Kutxa Municipalak Rodezno Kontea kalean duen aretoan. Artista honen lanak ikusteko, arratsaldeko 19.30etatik 21.00etara lanegunetan, eta jaiegunetan eguerdiko 12.30etatik 14.00etara dago zabalik.

'Aintzinako Guatemala' izeneko argazki erakusketa zabalduko da datorren asteartean, apirilak 13, Tuterako Castel Ruiz Zentro Kulturean. Bertako udalak eta 'La Caixa' Fundazioak antolatutako, UNESCOk bultzatu dituen Patrimonio 2001 proiektuaren barruan dago. Apirilaren 22a arte iraungo du.

ZINEMA



'El maestro de esgrima' izenburuko pelikula eskainiko dute datorren ostegunean, apirilak 15, Tafallako Español Zinemak. Herriko Kultur Patronatoak antolatutako, bi saio izanen ditu, bata arratsaldeko 20.00etan eta bestea gaueko 10.30etan. Sarrearak, 175 pezetatan salduko dituzte.

'Peter Pan' izenburuko pelikula botako dute datorren asteartean, apirilak 13, Azkoieneko Kultur Etxean, arratsaldeko bostetan. Hurrei zuzendutako ziklo honetan, asteazkenean, hilak 14, 'Beethoven' filma eskainiko dute, eta ostegunean, berriz, 'La Cenicienta'. Sarrera dohainik izanen da.

BERTSO SAIOAK



Angel Mari Peñagarikano, Andoni Egaña, Xabier Euskitze, Sebastian Lizaso, Jon Sarasua eta Iñaki Murua bertsolariak arituko dira datorren igandean, apirilak 11, Sunbilla pilotalekuan. Bertako Kirol Taldeak antolatutako, arratsaleko 18.00etan hasiko da, eta Bittor Elizagoien arituko da gaijartzaile. Sarrerak, 600 pezetatan salduko dituzte.

BESTELAKOAK

Euskarazko Ospakizunak izanen dira Iruñean Aste Santuan, urtero bezala. Gaur, Ostirala Santua, arratsaldeko 17.00etan izanen da, eta bihar, Larunbat Santua, gaueko 21.00etan ospatuko da. Elizkizun hauek Maristen Elizan izango dira, Zangoza kaleko 26 zenbakian.

AHAZTU GABE!

'ARTISTAK EUSKARAREN ALDE' Artisautza erakusketa ikusgai dago Altsasun apirilaren 3tik 18ra bitartean. Gure Etxeko aretoan. Datorren urriaren 24ean Nafarroa Oinez jaia Altsasun ospatuko da, Iñigo Aritza ikastolaren eskutik, eta horren aitzakiz, ekitaldi kultural ugari prestatu dituzte Sakanako herri honetan. Horien artean, erakusketa hau azpimarratu daiteke. Bertan, bailarako hainbat artisau ezagunen lanak ikusgai egonen dira Aste Santuko egunotan zabalik egongo baita egunero.

Zura, harria, keramika, burnia eta forja erabili dute artista hauek bere arte lanetan: Jesus Mari Olmos, Juan Miguel Zufiaurre eta Fermin Anda zura; Venancio Amillano harria eta zura; Rosa Aranz keramika; Aingeru Suarez burnia, eta Gerardo Brun forja. Altsasu, Bakaiku eta Izurdiaga herrietan sortutako artistak dira, hain zuzen ere, erakusketa interesgarri honen lanen egi-leak, eta Sakanako egiten den lanaren, askotan ezkutu eta ezezaguna, adierazgarri aparta, beraz, Sakanako artista hauen euskararen aldeko erakusketak ikusmin handia sortu du, eta jende ugari espero da bertan.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako.** Elkarriketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

'XINGULI-MANGULU', Aste Santua dela eta, Nafarroako irratia euskaldun gehienek atsedena hartu dute eta datorren astearte arte ez da saio berezirik izango. Baina egun hauek pasa ostean, ohizko programazioari ekingo diote, eta Euskalerrria irratiari, adibidez, 'Zokobetailu' saioan Gure Lur talde ekologistako ordezkari batzuk zuzenean arituko dira, goizeko 10.00etatik aurrera, Arga ibaiaren garbiketaz hitz egiteko.

ASTEKO PERTSONAIK



Jezabel Oroz
Zinegotzia



Maritxu Erlanz
Sorgina



Iñaki Ibañez
Futbolaria

Jezabel Oroz Sartzeko Kontzejuko zinegotzia mintzatu zen pasa den asteartean Iruñean, gasbidea dela eta, Zaraitzuz eta Nabaskoitzek lanak egitearen truke ez dutela ezer jaso azalduz. Lanak amaitzeaz daudela gaineratu zuen, eta oraindik Gobernutik ofizialki ez diete eskatzen dutena eman. Hasiera batean, ibar hauetako 23 hautetsik talde bat osatu zuten, eta zazpi puntuko taula osatu zuten, eskaera horiek Gobernu eta Enagas enpresarekin negoziatzeko. «Iparraldean lortu dituzte puntu horiek, horregatik eskatu genituen. Haiek lortu badituzte, zergatik guk ez?», galdetu zuen Orozek. Hau dela eta, Zaraitzu eta Nabaskoitzek gasbidearen aterabide bat izatea eskatu dute, proiektu bat aurkeztuz.

Maritxu Erlanz, 'Uliako sorgin ona' deitzen zuten emakumea, pasa den igandean hil zen Donostian, 81 urte zituelarik. Izaban jaioa, urte askoz Iruñean bizi izan zen. Gaztea zenetik, eta berak esaten zuenez, dohain parapsikologikoak zituen, eta ezkondu eta gero gai horri buruzko ikasketak egiten hasi zen. Telepatia, metafisika, bibrazioen fenomenoak eta antzeko beste ikasketak egin zituen, eta Parisera joan ere hezkuntza sendotzera. Gauza ugari aurrikusten zituen, lurrikarak, minbiziaz hilko ziren lagunak, eta abar. Bere senarraren heriotza ere aurrikusi zuen Maritxuk. Senarra hil ostean Donostiara joan zen bizitzera, Uliara, eta ordutik, 'Uliako sorgina' ezizenez ezagutu zuten askok.

Liga denboraldia hastear zegoenean fitxatu zuen Valentziak Iñaki Ibañez, betidanik Osasunaren aritutako jokalaria, eta zaletu askok ez zuten erabaki hau ongi hartu. Baina futbola horrela da, eta buelta ugari ematen ditu. Orain, aste honetan, Ibañez jokalaria 'transferiblea' dela esan dute zenbait komunikabidek, Valentzia taldeak sei jokalariren taula bat atera duela, horien artean naparra, beste talde batzuetara pasa daitezkeenak. Ibañezek lasai zegoela zioen, baina «Valentziaren soberan banago, Osasuna taldean baino hobe ez nintzan inon egongo», gaineratuz. Hala ere, zurrumurruak besterik ez direla eta bi denboraldi gehiago Levante aldean pasako dituela adierazi zuen futbolariak. Hori bai, azken partidutan entrenatzaileak aulkian utzi du.



San Migel

Santuaren irudiaren ibilbidea prest

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Urtero bezala, Bazko igandeko arratsean Aralar mendiko santutegitik aterako da Mikel Goiaingerua Nafarroan barna bere erromeria berezia egiteko. Erromesak santua ikustera joan ordez, erromesen bila abiatzen da Aralarako santua. Ohi denez, Miguel Azpiroz Baraibarko apaiza izanen da Goiaingerua eramango duena, eta kotxez lagunduko du Aralarako Goiaingerua bere ibilbide luzean. Aurtengo ibilbidea beti bezala igande arratsaldean hasiko da, eta egun horretan oinez Baraibarrera jaitsiko dute Goiaingerua, gaua bertan pasatzeko. Erromeria luzearen lehen astea, apirilaren 12tik 18ra, Araitz, Larraun eta Golina herriak bisitatzen emanen du Goiaingeruak. Apirilaren 18an etenaldia izanen da ibilbidean, eta Oskiako ermitara itzuliko da, egun horretan bere omenezko erromeria egiten baitute bertan. Biharamunean, apirilaren 19an hain zuzen ere, Uhartekoek Mikel Goiaingerua Iruñera eramanez dute.

Arratsaldeko zazpi t'erdietan, Takonerako ataritik helduko da Nafarroako hiriburura Aralarako Goiaingerua, eta astebete emanen du iruindarrak bisitatzen, gero Aritz herrirantz abiatu eta Olloibar bisitatuko du. Maiatzaren lehenean Oskiako ermitara itzuliko da, Uhartekoek bere omenez antolatzen duten erromeria dela eta. Arraitz, Larraia eta Zabaltza bisitatuko ditu jarraian, eta Beramenditik Basaburuan sartuko da gero. Baztani helduko zaio txanda, eta gero beste hainbat herriri Mikel Goiaingeruaren ibilbide luzea San Juan bezperan amaituko arte. Egun horretan, Uharteko jaiei hasiera emanen die Aralarako Santuak, eta bederatzi egun emanen ditu bertan, eta azkenik uztailearen batean Aralarra itzuliko.

Aspaldian ibilaldi luzea zaldigainean egiten zuen Goiaingeruak. Gauzak aldatu egin dira, eta egun bere ibilbidea kotxez egiten du, baina lehen bezala, egun ere ehundaka nafar topatzen ditu Goiaingeruak betiko eskaera bera egiten: «Mikel guria! Gorde Euskal Herria!». Agur esateko orduan ere aspaldiko kantua erabiltzen da egun ere: *Agur Mikel Aingeru! agintari handia, izan beti tronutzat! Aralar mendia.*

Erromes gutxi hurbiltzen dira egun Aralar mendira, baina Jose Maria Jimeno Juriok 'Udaberriko jaien egutegia' liburuan azaltzen duenaren arabera, XVI. mendeko amaiera arte herri asko igotzen ziren erromerian.



Santuaren irudiak iaz Iruñera egindako bisitaldian.

JOXE LACALLE

Tutera

Igandean jaitsiko da Goiaingerua

J. K. L. / IRUNEA

Urtero bezala, milaka lagun bilduko dira Bazko Igandean, etzi alegia, Tuterako Plaza Berrian 'Goiaingeruaren jaitsiera' ikusteko. Milaka lagun horiek Iñaki Gardachal zazpi urteko mutikoari begira geratuko dira Erloju Etxeko leihora irekitzean. Momentu horretan hodei batetik eskegita 'hegan' egingen du mutikoak, eta Ama Birjinarengana jaitsiko da soinean daraman zapi beltza gainetik kendu, eta bere semearen berpiztearen berri

emateko. 'Goiaingerua' Erloju Etxera bueltatuko da gero, alkatea eta zinegotziak elizarako bidean laguntzeko bertan, Goiaingeruaren meza entzun dezaten.

Dena den, egun bat lehenago, hau da, bihar, hamarrak aldera jende anitz bilduko da Plaza Berrian Judas, hots, Volatina hamarrak puntu-puntu dantzan ikusteko. Dantza hori hasi aurretik, hamarrak bost gutxitan hain zuzen ere, Victoriano Bordonaba Tuterako idazleak Volatinaren pregoia irakurriko du, eta esan

bezala hamarretan su emanen dio Volatinak ahoan daraman pueroari honek dantza egin dezan. Jakina denez, dantza madarikatu horretan txotxongiloak bere janzkiak galduko ditu, eta bakarra ere geratzen ez zaionean Volatin Elkarteak kideek gozoki eta pilota anitz botako dizkiete Plaza Berrian biltzen dire guztiei. Bi ordu geroago Volatin Elkarteak Tuterako Buruhandia oparitutako diete Argetaseko ordezkariak. Jakina denez, urtero Nafarroako herri bati ematen diote Buruhandia Volatinekoek.



ALTSASUko Aralarako Mikel Deuna Batxilergo Institutuko BBBko ikasle batzuek antzezlan burutu zuten euskaraz eta erdaraz bertako ekintza aretoan pasaden asteartean, 35 lagun partaidetzarekin. Gaztelarazko saioan Fernando de Rojas idazlearen 'La Celestina' liburuko 'Pleberioaren monologo' ospetsuaren moldaketa burutu zuten, eta euskarazko atalean zenbait abesti euskaldunetan oinarritutako lan tekniko eta mimoaren arteko konposaketa aurkeztu zuten. Abesti hauek Mikel Laboaren 'Gaberako aterpea' eta 'Lili bat'; Benito Lertxundiren 'Haur bat' eta Delirium Tremensen 'Ezin leike' izan ziren.

TAFALLAko ikastolak jaso berri du Langile Aurrezki Kutxak bultzatutako euskarazko bideoen lehiaketak, BBBko 6. mailako ikasleek egindakoa. Bideoa pasaden astea bota zuten Euskal Telebistan. Hau izan zen aurkeztutako 70 lanen artean bigarren saria jaso zuena, eta horren truke gela bereko ikasle guztiek Iparraldera bidaiatu eta bi pertsonendako Kortsikara bidaiara irabazi du Ikastolak.



BARDEAK baitan dagoen Torres de Leoz izeneko tokian zaborteia eraiki nahi du Varena elkarteak. Zaborteia urtero 280.000 tona zabor jasoko luke, martxan jarriko balitz, eta zenbait hondakin toxiko ere gordeko litzateke bertan, Landazuria Erriberako elkarte ekologistak aste honen hasieran ezagutzera emandako datuen arabera. Elkarre ekologistak azaldu zenez, zaborteia ez da beharrezkoa, 'El Culebrete' izeneko jadanik martxan baitago Tuteran, eta gainera berria ez litzateke ekonomikoki errentagarria izan.

TUTERAko Alde Zaharrean ez da beiraren bilketa bereitua egingen hemendik aurrera. Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitateak lau urte eman ditu lan hori egiten, baina orain dela gutxi ezarritako sistema berria dela eta, Alde Zaharreko beira biltzea «ezinezkoa» dela dio. Tuterako Alde Zaharreko Auzo Elkarteak Mankomunitatea eta Udalari zerbitzua berriro ere martxan jartzea eskatu die, baina ez dirudi aukera handirik dagoenik, jakina denez, Iruñean ere beira bilketa hiri osoan, Alde Zaharrean izan ezik, egiten baita.



Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez eta Amaia Telletxea, astelehenean, Lesakan.

OSKAR MONTERO

Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez eta Amaia Telletxea. Bi lesakar eta arantzar bat. Bortzirietako Bertso Eskolakoak, Nafarroako bertsolariak izan duen aldaketaren hiru adibide dira, Bittor Elizagoien eta Manolo Aroze-

naren gidaritzapean hain emaitza onak ematen ari den taldearen erakusgarri. 18 eta 17 urtekoak, barre bizian aritzen dira, baina ez dute lotsa izpirik egiak jaulkitzeko. Bertsoak bezain biribilak, hala ere.

Aldaketaren bertsolariak

ALBERTO BARANDIARAN / LESAKA

«Zorionak!» etengabekoen artean dabilta oraindik. Lesakan jende guztiak agurtzen ditu, txikiak eta helduek. «Bai, abotsa txarra, baina bigarrena, eh!» esaten dio Estitxuri mutiko batek, barrezka. «Eta zu, kontent, ez-

ta?», Estitxuk. «Horixe». Astelehena da, baina ez dute sumatzen bestondoa. Telefono deiak etxean, institutuan laudorioak. Gaur elkarrizketa, bihar irratian telefonoz, aurreko egunean telebistan... herriko famatuena dira egunotan. Bertsolari ospetsuak.

Estitxu Arozena eta Amaia Telletxea bikaun ibili dira aurtan, Aitor Telletxearekin batera finalera heldu baitziren, eta hor ere ustekabea eman, bigarren txandara pasa baitziren bi neskek. Estitxu Fernandezek Etxarri-Aranatzen kantatu zuen, eta pozik gelditu da egindako lanarekin. Hirurak lasai, kontent, gustu handiz hartzen dute parte gure argazkilariak egiten dien marketan, eta lotsa izpirik ez dute erakusten modeloen antzera desfilatzeko eskatzen dien bitartean. 18 eta 17 urtekoak, Nafarroako bertso-

laritzaren aurpegi berria dira.

Eta Bortzirietako Bertso Eskolako beren lagunak ere kontent, nahiz eta finalera ez sartu. «Asko pozten zara zure koadrilakoak hor ikustean, Gaiarren. Oso polita da», dio Estitxu Fernandezek, aurtan lehendabiziko aldiz parte hartu ondoren pixka bat haserre gelditu denak, finalean ez sartzeagatik. «Ez nuen espero sartzea, eta ez zitzaidan gehiegi inporta. Sartzen baldin banintzen, hagitz ongi, baina bestela ere bai. Min handien egin didana da Amaiak izango dituen saioak nik ez ditudala izango, eta orain pentsatzen duzu 'gehiago saiatu izan banintz...' Horregatik, sailkapeneko postua baino, finalean ez sartzea da garrantzitsua».

BERTSOLARITZAREN ALDE MAKURRAK

Izan ere, eta bertsolaritza munduaren lehia hauetan sartu berriak badira ere, azkar asko antzeman dituzte horren alde makurrak. «Kendu beharra zaio garrantzia txapelketari», dio Estitxu Arozenak, «prentsan eragin handiegia duelako. Ondorioz, urtean zehar egiten diren bertso

saioetarako erreferentziatzat hartzen du jende askok txapelketaren puntuazioa, eta saio bat txarra baldin baduzu, ez dizute deitzen». Berak 60 bat saiotan abestu zuen iaz, aitak adina ia, eta aurtengo lehendabiziko hiru hilabeteotan 30 bat daramatza dagoeneko. Amaia eta Estitxu Fernandezek, ordea, apenas abestu duten eskolen arteko bertso saioetan, eta dena, haien esanetan, finalean egindakoagatik.

«Silveirak, adibidez» azaldu du Fernandezek, «ikusten zuen finalera pasatzen ahal zela, bertsolari ona delako. Ez zen pasa,

Nafarroako bertsolaritza gehiegi zentralizatuko den beldurrez ere, ezin uka Bortzirietan dagoela etorkizuna. Bi urte eskasetan inork espero ez zuen maila lortu dute txapelketan, horretarako propio prestatuta.

Bertso eskolan zortzi gara adin berekoak eta hogeitabat 10 eta 14 urte bitartekoak. Denak eroturik aritu dira egunotan: 'Ze ongi, ze polita, ikusi zaitut telebistan...'. eta haserretu da horrek saioak kenduko dizkiolako. Gero eta saio gehiago, orduan eta praktika eta segurtasun handiago. Hala ere, erraten zuen horrelako ikasiko zuela...». «Hori da txapelketa», gaineratu du Estitxuk, «Silveira finaleko zortzitik bost baino hobea da; eta zenbait saiotan, zortzitik zortzi baino hobea. Eta txapelketan egun bat txarra izan zuelako, askoz saio gutxiago egingo du».

Pasa den txapelketa fresko-fresko daukate oraindik, eta Amaiak oso ongi gorde ditu buruan pasatako larrialdiak, nahiz eta, berak esaten duen bezala, «eskerrak, dena pasa da». «Saio osoa egon nintzen begira epaimahaiari: aritu nintzen etengabe pentsatzen nola puntuatzen ari ziren, eta pasada bat izan zen. Etxarrin ez zen hain gogorra izan, baina ez nuen uste pasatuko nintzenik, eta sobera kargaturik ateratzen nintzen. Ikusten nituen Mendiburu, Manolo eta Estitxu, eta erraten nuen: nik zer egiten dut hemen?».

ELKARREKIN GIRO APARTA

Nolanahi ere, gazteak dira, eta ez diote hainbeste garrantzirik ematen txapelketari. Haien arteko giroa aparta da, eta Amaia finaleko azken bertsoan ez aurrera ez atzera gelditu zenean, Estitxu eta Manolo errimak botatzen aritu ziren, laguntzearen. Bertso eskolan eta koadrilan arretatsu jarraitu dute beren partaidetza, eta horrek animo eta gogo berriak eman dizkie. Bittor Elizagoienek eta Manolo Arozenak zuzentzen duten harrobi honetatik ateratzen dira txapelketa nagusian parte hartu duten gazte guztiak, Urko Atxutegi salbu, eta finalera heltzeak gazteendako akuilua eta itxaropena izan dela diote. «Eskolan zortzi gara adin berekoak, eta hogeitabat daude 10 eta 14 urte bitartekoak. Denak eroturik aritu dira egunotan: 'Ze ongi, ze polita, ikusi zaitut telebistan eta...' Badute gogoia haiek ere txapelketan parte hartzeko eta gu ikustean animatzen dira hagitzez gehiago».

Izan ere, eta Nafarroako bertsolaritza gehiegi zentralizatuko den beldurrez ere, ezin uka Bortzirietan dagoela etorkizuna. Bi urte eskasetan inork espero ez zuen maila lortu dute txapelketan, horretarako propio prestatu direlako. Goizuetan, Sakanan eta Iruñean ere hasi ziren bertso eskolak, baina ez dute lortu hemen-



Estitxu Arozena.

O.M.

Bortzirietako bertsolariak



mintzoak



elletxea.

O.M.

go atarramendua. Akaso tradizioa, edo giroa, edo... maisuak. «Hemen hasi zen lehendabizi bertso eskola» dio Amaiak, gutxien hitz egiten duenak, «eta guk jarraitu dugu gogor eta gustoz, eta beste eskoletan ez hainbeste. Ni atera nintzen abestera lehendabiziko aldiz Zumaian, eta Manolok izena eman zuelako, ze nik ez nuen uste prest nengoenik ateratzeko». «Gainera Estitxuk eta Silveirak iaz hartu zuten parte txapelketan, eta hori oso garrantzitsua izan zen guretzat. Gu bezalakoak ziren, bi gazte, gure koa-drilakoak, eta finalera heldu».

18 urtekoak zaharrenak, gazteen arteko bertso saioak dituzte gogoen, eta plaza txikitik nahiago. «Duela gutxi Goizuetan abestu genuen, arkupean, eta ez ziren 30 ere izango. Hala ere, ikusten zen neska



Estitxu Fernandez.

O.M.

ttiki bat, nola errebasatzen zituen bukaerak, eta ilusioa, irriak, txaloak... oso ongi. Kopurua baino gehiago, giroa da garrantzitsuenak». Ados daude hirurak Estitxu Fernandezekin, eta Arozenak neska eta gaztea izatearen garrantzia azpimarratu du. «Ez dakit zergatik, baina modan dago neska bat jartzea bertso saioetan. Bost mutil, eta neska bat eraman behar. Orduan, askoz guttiago garenez, ba, saio gehiago egiten ditugu. Ni, kontent, gustatzen zaidalako, baina askotan pentsatzen duzu: 'Ekarri naute neska naizelako, eta ez bertsolari naizelako'».

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa dute hurrengo zita Estitxuk eta Amaiak, nahiz eta hau sartzeko justu samar ibiliko den. Txapelketa urrian hasiko da, eta berak orduan beteko ditu 18 urte. Hala ere, oso zaila ikusten dute, eta ez dute uste final laurdenetatik nafarrik pasako denik. «Akaso Manolo, erdifinaletara...». Gazteen arteko txapelketa ere ez dute errazago, Nafarroatik bakarria joaten delako. Iaz Silveira egon zen, «eta aurrean nik irabaziko dut» dio Estitxuk barrezka. Eta besteak ere barrezka. Postua, finean, gutxienekoa baita.

● Beltzuntzeko bide gurutzean bada 'La Estrella' izeneko ostatu bat. Urtez urte Iruñeko Errege Magoak hara joan ohi ziren afaltzera, Kabalgata pasa eta gero. Gaurtik ikusita, begi-bistako zergati mitikoa dauka aferak. Orienteko Errege Magoak zirenez gero, eta izarrari jarraituz, ezinbestekoa zen 'La Estrella' ostatura afaltzera joatea. Aitamek opariak lehoetan uzteko betarik izan zezaten, herriko neska-mutil guztiak iturrian bildu egiten ziren gaueko zortzietan, eta behorretarako manejatzen ziren zintzarriak bizkarrean ezarritu, halako zarata zerutiar sortuz, etxez etxe ibiltzen ziren, ez dirurik eskatzen, ez kantatzen, non zeunden azaltzen, besterik gabe, aisa engaina zituzten. Baina hamaikak eta erdi, hortxe agertzen ziren Iruñeko Errege Magoak, haur txarrek antzinako usadioei eutsiaz, eta haiek eginginda igual kantaka. Aralarako Aingeruak ostatu berean lo egiten zuten, baina hori ez zen mozkortzen, ez zion hain aritmetikoki 'En mi pueblo planté un pino' eta gisa horretako jotak kantatzeari ekiten. Oriente lekutan omen zegoen, eta inolako azalpenik gabe bapatean onartu egin behar hantxe ere jotak kantatzen zirela, edo are okerrago, Errege Magoak orojakileak izaki, jotak nahiago zituztela, Beltzuntzeko kopia zahar eta irudikorak baino. 'La Estrella'-ren etxeokandareari galdetu, eta hark ezetz, dena ukatu. Haurrek egia esate esperatzea ere. Gizona gizon deino siniskorra da, baina ez hainbestearinokoa. Horrez geroztik magiaren aferei antzu irizten diet, haur txar batzuek engainatzeko moduko zerbait. Soldada batez bizi naiz, eta horoskopok behin eta berriro, igande guztietan esaten dit gaurkoa egun aproposa dela negozioetarako. Kakalabaka. Igandea dela igertzeko gauza ez bada, zertarako amodio eta zorionarekin harat-honat hasi. Ironiko xamarra iruditzen zait negozioerik egin dezakegulakoa. Haren adiera etimologikoa bagagozkiola, 'neg-ocio, ez aisia', ordun posiblea da, bestela kosta

tata. Azti hauen balioasuna egiaztatzeko, maiz esaten da nola diru aferetan sartuak direnek haien zerbitzuak usatzen dituztela edota politiko inportante batek, zeinek kontu ezinezko izenekoak bait du, emakume ero horietariko bati galde ziola zer egin behar zuen hurrengo hautesketan. Betiko baliabide txirotak engainatzeko. Aberatsek zer egiten bait dute, hura egin behar besteok, aberatsek zerbait daukate gogoan, hura eduki behar txirotok.

Orain demagun Saturnorekin ere gaizki doakigula, gaur Saturnok begitan hartzen gaitula, akabo. Mazkurak izanez gero, beti daukagu BALSAMO ORIENTAL-*ez* igurtzea, bai, badakizue, frasko tippi eta koloredun hori, orixka dena, zeinetan paratzen bait du 'BALSAMO ORIENTAL!! Callicida!!', REGISTRADO EN LA DIRECCION GENERAL DE SANIDAD CON EL N.º 6.1.47, EL 8 DE OCTUBRE DE 1924. MODO DE EMPLEO. APLICAR EL CALLICIDA SOBRE LA CALLOCIDAD UNA O DOS VECES AL DIA, EN UNA SEMANA SE DESPRENDERÁ. CASO CONTRARIO SUMERJER LOS PIES EN AGUA CALIENTE Y PROCEDA A DESPRENDER CON AYUDA DE LA UÑA. Baina Saturnoarena nola konpondu. Zer egin ote Saturno bere bidera bihurtu dadin. Begira atzo esan nizun gaur afaltzera joan behar genuela, baina ez dakit Saturno onez onean ohetik jeiki den, eta hobe dugu beste egun baterako, Margarita, aforia uztea. Saturno onez onean jaiki ez dela, bale. Akabo Benus eta akabo Margarita. Zorionez bizitza misteriozuegia da, belargin edo azti lelo batek kafearen hondarretan Halabeharrak non egin behar duen pixa ere iger ez dezaten. Haiei sinistea ikaragarritzko errespeturik falta iruditzen zait bizitzarekiko. Beti adibide bera ematen da, nola Nostradamusek bi mila urtearen inguruan Babilonia aldera Satantzen izeneko buruzagi batek miloi bateko osterekin mundu guztiaren kontra jo behar zuela igarri zuen eta gero Golfoko gerrate

izan genuen. Bai, egia da. Nostradamusek esan zioena ez da txantxetan hartu beharrekia. Hala eta guztiz ere, horrek badu bere zergati logikoa. Hassan Husseinek, munduak ezagutu duen zororik inportanteenetariko bat, Nostradamus zoroari jarraitu zion. Edozein zororik normalean nahi duena izaten da bere astakeriak zertzen ez badira, behinik behin Astakeriaren historian sartzea. Hassan Husseinek ez zuen Kubait harrapatu nahi, ospea, sona handiko izen bat baizik eta nori kasu egin eta Nostradamus-i..

Eta are gehiago, zertarako patua ezagutu? Harrengandik alde egin nahian, harekin begiz begi topo egiteko etxarte kakazu batean? Federico Garcia Lorca, falangistek gogoko ez zutela, Madrildik lekutu zen Granadara, han bait zuen baliozko lagun falangista bat, eta Granadan akabatu zuten. Bagdadeko morioiak Heriotza ikusi zuen azokan eta Heriotzak amenazuzko keinu bat egin ziolakoan Ispahanera joan zen, eta Heriotza harritu egin zen azokan Ispahandik hain urrutitikustez, Ispahandik hartu behar bait zuen. Garbiñe Bernalek duela gutxi Nafarkarian kontatu zuten, erreka andreak gizon bati esan zion bere astoaren hirugarren puzkerrarekin batera hil egin behar zuela, eta gizonak ziri bat sartu zion ipurdian astoari bigarren puzkerra botatakoan. Ziri horrek kenduko zion bizia gizonari, gizona ziriak ea bere tokian irauten zuen ari zenean, begia astoaren ipurdiaren ondoan paratuz.

Patua gertatu beharrekia baldin bada, jakinda ere, alda-kaitza da. Bestela ze patu klase izanen litzateke hori? Rapel bezalako tipo nazkagarri batek gure etorkizuna ezagut baldin badezake, akabo. Gure barruan daramagun hizkuntzalari matxista horrek hitz gutxitan laburbilduko luke afera: 'Geroa marikonada bat duk gero'.



Juan txo Urdinoz Markalaingo alkate ohia

Giroa eta gogoa

A. B. / LESAKA

■ Gazteen gorakada eta bertso eskolen fruitua. Hau izan daiteke aurtengo txapelketaren ondorio-rik nagusia. Urtez urte txapelketari sostengua eta izena eman diotenek harriturik eta itxaropentsu ikusi dute bertso eskola-koen igōera baina horrek bidean utzi ditu asko. Maila igo egin da, dudarik gabe, baina horrek askoren ikusmoldeak aldaraz ditzake. Manolo Arozenak finalaren

ostean ere azpimarratu zuen hemendik aurrera burua horretarako hobeki prestatu beharra, eta gazteek garbi dute aurrerantzean gauzak gero eta zailago jarriko dutela. Estitxuk dioenez, «lehengokoei gertatu zaie lehen lehiarik ez zegoenez, ez zirela saiatzen, eta prestatu gabe joaten ziren txapelketara. Duela hiru urte arte, txapelketa baino bi hilabete lehenago bazenekienezintzuk ziren finalera pasatuko zirenak. Dena finkatuta zegoen.

Aurretik konpetentzia handiagoa izan bazuten, orain hobeak izango ziren. Baina ez zuten beren burua motibatzen, eta guk, orain, badugu teknika handiagoa».

Txapelketako eta plazako bertsolarien arteko desberdintasunak iraungo du, dudarik gabe, baina gazteak espreski txapelketarako prestatu dira eskoletan, eta horrek abantaila ematen die beste moldetako bertso saioak abestera ohituta dauden aurrean. Halaber, baliabide hobeak

dituztela dio Estitxuk.

Estitxuk eta Amaiak atzean utzi dute Bittor Elizagoien maisua, hau txapelketarako faboritoen artean izanik ere, baina garrantzia kentzen diote honi. «Maisuen lana baino, bertsolari-tza praktika da, eta barruan eramatea. Nik ezin dizut ongi erakutsi bertsoan, eta ondorioz bertsolari zara. Norberaren barruan dagoena da garrantzitsua. Hala ere, bai, maisuren aurretik gelditzeak egiten dizu zerbait barruan».

Txapelketa gora eta behera, haien artean lehiarik ez dagoela diote. «Bertso eskolakoan artean ez», dio Amaiak.

Bertsolari gazte hauei benetako neurria emango die aurrean jokatuko diren Euskal Herriko txapelketek, bai nagusiak, bai eskolen artekoak, eta batzuk bertsolari hauek azkarregi igo ez ote direnen beldur badira ere, ezin uka bertsolaritza Nafarroan ez zeukana topatu duela Bortzirietan: giroa eta gogoa.

Gazteendako zokoa

Zuhaitz-belatza

Falco subbuteo

Ez du kabirik paratzen


Erdialdean ugariagoa
Zabala eta azkarra

Gautxori

Belatz txiki hau azkarra oso da, enarak eta sorbeltzak harrapatzeko gai baita, hegan aritzen denean. Hain zuzen ere sorbeltz handi baten itxura ematen du hegan dagoenean. Pausaturik dagoenean bere hego handiak nabarmentzen dira: 71-84 zentimetrotako zabalerara dauka.

Ez du kabirik paratzen eta belbeltzak uzten dituenak aprobetxatzen ditu. Bertan hiru arraultz gorrixka erruten ditu. Nahiko zaila da ikusteko, gaua baitu gustuko. Izan ere, arrastirari, eguzkia sartzen ari den momentuan hasten baita bere harrapakari lana. Errez ikusten da orduan enarak lotan dauden tokietan, eta insketu, ugaztun txikiak eta narrastiren batekin osatzen du elikadura. Kukuren bat harrapatzeraz ere haldu daiteke.

Kabia oso berandu paratzen duenez, horrek laguntzen dio janaria aurkitzen, garai horietan ugari diren txori franko harrapatzen baititu. Nafarroa osoan aurki daiteke, baina batez ere ugaria da Erdialdean eta Erriberan, eta baita Bardeetako basoetan eta zingiren inguruko tokietan ere.



Iluntasuneko karraxiak

AITZOL LASA

Soinuak eta hotsak nire inguruan dabilta, ordenik gabe, pauso okerreko dantza baten antzera. Ni hegaz nabil guzti honen erdian, flotatzen banengo bezala, eta nere begiek kolore argi, distiratsu nahasketa ikaragarria dakusate.

Bapatean dena aldatuz doa. Koloreak itzaltzen doaz, margo politak bihurturik. Jada ez dago dantza zikinik ez hemen, ez han, baina nahasketak oraindik dirau. Nahasketa ederra da ordea. Koloreen bizitasuna kolore errealek izatera igaro da, gizakiaren itxura hartuz. Aurpegi bat nabari da orain, lehen buru hutsa zegoen lekuan, bi beso, bi zango, gorputz oso bat, hitz batean. Eta zer nolako gorputza!

Nere maitea da, bai, kolore festa hortatik datorkidana, ni bezala, ezerezean flotatzen. Bere ezpain sentsualak nabari ditut oraintxe. Irrikatzen nago, ea noiz egongo den gure gorputzak elkar ukitzeko bezain gertu, ni ezin bait

naiz mugitu, nere ankek ez dute oinarri finkorik ibili ahal izateko, eta, behin eta berriz saiatu arren, ezin dut igerian ibili xurtasun deskonposatua den itsaso honetan. Hurbiltzen zait bera, nigana dator, hau irrikia!

Nigandik pare bat metrotara dago, ezin zehazki esan, bere begietara zuzendurik bait daukat begirada, eta inguru irreal honetan zail hori zehaztea.

Gure begiradak elkartu dira. Bere ezpain xamurrak higitzen hasi eta, goxoki, «maite zaitut» diote. Nere belarrietara munduko hotsik ederrena ailegaten da. bere ezpainak hain dira bero eta goxoak! Erotzeko modukoa! Bihotza bizkortu egin zait, neurri handi batean.

Besoak luzatu ditu, niri heltzeko irrikitan balego bezala. Ez da kit nor dagoen irrikitzen gehiago, bera edo ni neu. Besoak luzatu ditut nik ere, Madarikazioa! ez naiz heltzen. Bere eskuen eta nire artean ez dago maitasun koloreko marrubi batek beteko lukeen gunea ere, eta honek urduritzen nau.

Besoak luzatzen ditut desesperatuki, eskumuturrak atera behar zaizkidala uste dudanean, baina alferrik.

Bere ezpain goxoek nire izena errepikatzen dute behin eta berriro, bere abiada geldia jotzen joan bait da, goizaldeko ihintza hostoetatik erortzen den baino azkarrago, guztiz gelditu arte. Bere irribarrea izu bilakatu da, barrenak izoztu dizkidan bortizkeriaz. Bere irudia desagertzen doa! Bera, eta inguruko kolore festa iluntasunean sakontzen doaz, eta nire izena errepikatzen du, behin eta berriz, nik inguru argitzea nahi baldu bezala, eta nik ezin dut sinetsi.

Oihu lazgarri batek gorroto garraxi bat aterarazten dit. Emea karraxika, desagertzen doa, min bortitz batek zigortuko balu bezala.

Nire gorrotoa handitzen doa, barrenak gori-gorian ditudala. Bapatean diot, nere indar guztiz: —Ez!

Ixiltasun une bat, eta anaiak alboko ohetik:



BASAJAUN

Europako Elkartean (EE) sartzeak elkarte honek bere bazkide guztiei eskatzen dien arautegi juridiko eta legalari egokitzea ekarri zion Espainiako Estatuari. Horrela, Espainiak ingurugiroari buruzko legeei egokitzeko neurriak onartu behar zituen, ezarian ezarian, biosferaren hondamendari aurre egiteko.

Diru kopurutan, 8 bilioi pezeta gastatu behar izan ziren lurbera osoak kutsadura eta hondamendiari buruz dituen arazoetan, baina ez da horrelakorik izan. Esan daiteke krisiak nabarmen kaltetu dituela ingurugiroa babesteko eginak diren produktuen ikerkuntza, garapen, fabrikazioa eta komertzializazioaz arduratzen diren enpresak. Hori dela eta, aurpegi garbitze hutsa egiten zuten enpresa askoren jokoa agerian gelditu da, orain, zoriarekin krisia dela eta, enpresa askok ez baitute ikusten behar beharrezkoa horrelako irudia zabaltzea, eta inbertsioak murrizten dituzte.

EEren sartzeak eskaeraren gainean sortuko duen presioak ekoindustria honen kanpoko emaitzak bilatzera bultzatuko gaitu, eta gainera, horrek garestitu egingo ditu egun merkatuan dauden tresnak. Espainiako Industria, Komertzioa eta Turismoa Ministeritzaren arabera, ingurugiroari buruzko asesoria eta gai honi buruz produktuen eskaintzen dituzten enpresak 250tik gora dira egun. Hauen artean, baina, ez dira kontuan hartzen soilik Ingurugiro Inpaktuaren Ebaluaketa aztertzearen sortuta daudenak, bi urte eskaseta nahiko finkatuta gelditu direnak, urteotan izan den eskaera dela eta.

Jenero Xumekoak

Peru Gurea

Londresen dut neuk senarra, omeopatia ikastaro bat egiten. Bera han den bitartean, dantza dezagun Peru Gurea. Neure oilanda nabarra, ttipia baina koxkorra, zelan hoa hi auzora, etxean oilarra duala? Nire senarra bezain jeloskorra bahaiz, nire mutillto txoria, esaioek nire senarrari nirekin habila. Suzuki zuri bat emanen dik hiri eta niri jipoi bat.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Erretokiak
2. Janari
3. Herri nafarra
4. Alokairua
5. Izanak

1	2	3	4	5
1	2		4	
3				
4				
5				

N-63

1. Gizena
2. Herri nafarra
3. Saski
4. Betunak
5. Jakinen banu

1	2	3	4	5
1	2		4	
3				
4				
5				

1. Altzoa
2. Herri nafarra
3. Jakinen balu
4. Aintzira
5. Soldadak

1	2	3	4	5
1	2		4	
3				
4				
5				

Zaharrak berri

Senarra hil nahi baduzu
uzta-agutzuan aza emai-
ozu.

Aza jateko garai txarra.

Araitz

—Aita, erositazu dan-
bor bat.

—Ez diat erosiko. Ez
haiz ixilduko hire danbo-
rrarekin guri belarri guz-
tiak gortu arte eta.

—Ez, aita, lo zaudenean
bakarrik joko dut.

Bizi Bizian

Sendabelarrei buruz ikastaroa hasiko da heldu den 23an Iruñeko GITE institutuan Xabier Urdinek eskeinia. Bertan sendabelarren historia, erabilerak eta errezeta batzuen berri emango da, euskaraz eta erdaraz. Bestetik, Bertizen Pirinioetako sendalanda-reei buruzko erakusketa ikusgai da egunotan.

Etxeko botikak

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Sendabelarrak erabiltzen noiz hasi zen zehaztea, gizartearen jatorri ilunean egun baten historia laburbiltzea bezain zaila litzateke. Sendabelarraren erabileraren historia gizartearen historia baita. Hasieran, gizakumeak belarrak, animaliak eta harriak erabili zituen zenbait gaitz sendatzeko, garai horietan ez baitzegoen beste biderik. Xabier Urdinen uste-tan, garai horietan oso garrantzi-tua zen gizakumearengan zegoen boterea, «orduko gizakumea gaurkoa baino zentratuagoa baitzegoen. Orain beti jotzen dugu medikuarengana edozer gauzatarako, eta lehen jendeak gehiago zekien bereaz eta bes-teez».

Sendabelarrak hasieran jan-garri moduan erabili zituzten, eta gero probatzen hasi ziren esperi-mentu bezala erabiltzeko. Erabi-lerak, baina, ez dira sobera aldatu urtetan zehar, baina oraindik gaur egun ez dago batere adostasunik belar bakoitzaren ezaugarriak zehazteko orduan. Izan ere, oso gutxi ezagututako arlo baita hau. «Herriak beti erabili izan ditu gertuen zituen sendabelarrak, eta nahiz eta zehatz-mehatz ez eza-gutu bere ezaugarriak, bazekiten barruan bazituztela botere bat-zuk. XVI. mendean hasi zen era-biltzen botika eta sendabelarrak erabiltzeko utzi zitzaion, pen-tsatzuz sendabidea errazago eta azkarrago izango zela, baina az-ken finean ondorio berbera hel-tzeko bi modu ezberdinak dira».

Sendabelar mota ugari dira, eta ia denak badute ezaugarriren bat, ona edo txarra. Zein gaitzendako diren onak edo txarrak, hori es-perimentziaren kontua dela dio Ur-dinek. Hala ere, medikuntza guz-tian bezalaxe sendabidean sinis-tearen garrantzia azpimarratu du sendabelarra era-ginkorra izateko. «Sinismenik ez badago, ez dago sendabiderik, eta sendabelarrekin medikuntza egin ez dezakeena eragin dezake, sinistuz gero. Arruntenak sen-da daitezkeela, hori baieztaturik dago. Beste gaitz askorekin, ordea, sinismena da

funtsa».


Urdinek Nafarroan dauden sendabelar gehienak ezagutzen ditu, eta lurralde hau oso oparoa dela dio, ingurugiro guztietako adibideak topatu baitaitezke. Biltzeko orduan, ez da landatuta dauden tokietan, edo bide ertze-tan edota hiri inguruetan bilatu behar, babestuta eta ezkutuagoak diren tokietan baizik. Hala ere, ez du esaten zeintzu diren horretarako toki aukeratuak. «Hori ezin da esan. Toki gutxi izateaz gain jendea-ri esaten badiozu, akabo. Nik dakidana jendea-ri azaltzeko prest nago, baina tokiak esatea txorakeria iruditzen zait».

Halaber, sendabelarrak biltzeko ere badaude garai aproposak, eta aproposena, San Juan gaua. «Egun hori oso garrantzi-tua da, urtearen giltza baita. Mundua eta gizakiak aldatzen gara egun horretan, eguzkiaren boterea hor baitago: gehien irau-ten duen eguna da. Hortik beraz egunotako suteak: eguna luzat-zeko eginak ziren, ez bakarrik hemen, baizik eta mundu osoan». Egun horretan eta San Pedro bi-tartean landareek aparteko ber-tuteak bereganatzen dituzte, eta orduan jasotakoak urte osoan erabili daitezke. Apropo-za da ere goizaldean biltzea, «ihintzia oraindik dagoenean», eta baita arratsalde partean ere, baina beti eguraldia harrotuta ez dagoe-nean.

Ikastaroa euskaraz izango da, eta horretarako herri eta ibar guz-tietan erabiltzen ziren izenak biltzen ari da Xabier Urdin zenbait liburuetatik. «Aberastasun izu-garria dago, askotan, herri bereko etxe batetik bestera aldatzen bai-tira izenak». Hala ere, gaitze-az dagoen jakinduria dela dio, eta berreskuratu beharraz aritzen da. «Badaude mende mende eta be-launaldiz belaunaldi pasa diren

errezetak, eta jende askok be-rarentzat dauzka gordeta. Hori ezin da egin, errezeta horiek galduz ge-ro, gure kultura-ren zati bat gal-tzen baitugu. Ha-laber, erdal izen-nak nagusituz joan dira, eta nahiz eta euska-raz aberastasun handia izan, ahazten ari da».

Sendabelarrak biltzeko egunik aproposena San Juan eguna da. San Pedro bitar-tean aparteko bir-tuteak beregana-tzen dituzte, eta urte osoan zehar erabili daitezke.



«Katarroarentzat tipula esnetan»

P. U. / IRUÑEA

Badira etxe guztietan ama edo aminarengandik ezagututako zenbait errezeta edo minak kentzeko baliabide. Nolanahi ere, ahaztu edo kaletarra izanik inoiz aditu ez duenarendako hona he-men lau gaitz arruntetako zen-bait errezeta. Katarroa sendatze-ko oso ona da tipula esnetan ego-si, eta ondoren esnea hartu (tipula ez!). Halaber, berbena txaplata ere oso ona da. Horretarako ba-ratxuriak oliotan frijitu behar di-

ra, eta ondoren berbena bota. Arraultzaren zuringoarekin nahastu, eta horrekin egindako tortila bularraldean jarri. Buruko mina eta nekearen kontra ozipina gatzarekin nahastu behar da, lo-ditu arte. Zapi bat hezetu hortik ateratako nahasketarekin eta bu-ruan jarri. Halaber, oso ona da hankak belarrak egositako uretan sartzea, Xabier Urdinen esane-tan, «gaitz gehienak bertatik bai-tatoz, hozterakoan». Haginetako minarendako haginean baratxuri bat jartzea gomendatzen da, bai-

na baita oso erremedio bitxia ere: txerribaba izeneko landarearen haziak hartu, eta plantxa beroan jarri, kea atera arte. Ke hori, imu-tu baten bitartez minutuko ha-ginera zuzendu, eta mirakulutsua omen da. Baita aizkora bat, zapi batean bilduta mina dagoen to-kian paratzea ere. Kolpeendako pomada ere egin daiteke berbena, sugebelarra, txanpon belarra, zangorri eta bortzain landaree-kin. Horiek denak frijitu eta gero ezkoa bota. Nahasketa gero kol-patutako tokian igurtzi.

Mikel Petrirena

.....EHNE-Nafarroako lehendakaria

Mikel Petrirena EHNE-Nafarroako lehendakari aukeratu zuten berriro nekazal sindikatu honek joan zen igandean egin zuen V. Batzarrean. 'Etorkizunerako tresna' lemapean, erreibindikazioari uko egin gabe zerbitzu teknikoak hobetzeko premia azpimarratu zuen EHNEk. Perez Lapazaran Nekazaritzako sailburua Batzarrean egon zen eta erreibindikazioari eusteko esan zien Nafarroako bigarren nekazal erakundeko buruei. Hori da sindikatuaren asmoa.

«Bakoitzak bere errotara eramana nahi du EHNEren ura»

A. UNANUE / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Azken batzarrean aurrekontuak bikoiztea erabaki zenuten, zerbitzuak hobetzeko asmoz. Autofinantzaketa eta profesionalizazioa duzue helburu? Ala, erabakiguneak gero eta urrunago daudenez, erreibindikazioaren bideak eragina galdu duela uste duzue?

MIKEL PETRIRENA.— Hasteko, EHNE zein egoeratik datorren ikusi behar da. Ate guztiak itxita eduki dituen garai batetik dator. Horrek eragina izan du EHNEren orain arteko egoeran. Egitura muntatzea oso zaila du, diru iturriak moztu zaizkio eta. Orduan, EHNEri negoziazio mahaietara joatea ezinezkoa zitzaionean, kalean mugitzea nahikoa zuen. Gaur, berriz, oihu egitea ez da aski. Mahaietara joan gintezke, proposamenak eraman ditzakegu. Hori guztia egiteko gure egitura indartu behar dugu, talde teknikoak osatu. Horrek ez du esan nahi, inolaz ere, EHNEk bere borrokarako edo erreibindikaziorako joera utziko duenik. Osagarri bat da eta eutsi egingo diogu.

EGUNKARIA.— Zerealisten sarerarekin badirudi EHNEk Nafarroako erdialdera zabaltu duela bere eragina. Joera horrek aurrera egingo du ala zerealisten kasua bakana da, UAGNrekiko haserreak eragindakoa?

PETRIRENA.— Uste dugu pasa

den denbora honetan EHNE eza-gutxera eman dela. Jendeak garbi ikusi du bere independentzia, loturarik ez duela. Horri lotzen bazaizkio inguru honetan zeukaten nekazari sindikatu baten beharra eta UAGNekin izan dituzten tirabirak, ba eman da eman dena. Uste dut EHNErentzako denboraldi berria zabaltzen dela honekin. Hau ez da hemen bukatuko, egunero jendea deitzen ari zaigu.

EGUNKARIA.— Zer eskaintzen du EHNEk UAGNren aldean?

PETRIRENA.— EHNEren eta UAGNren nekazariak mota berekoak dira, txiki-erdikoak tainaz. Baina gaurko egoerari aurre egiteko bi filosofia daude. Guk beti esan izan dugu beharrezkoa dela baserriarrak nekazaritza inguruan mantentzea. Beste batzuk, berriz, nekazaritza industrializatuagoaren alde daude eta, ez esan arren, eguneroko egitekoan onartzen dute nekazari txiki askok baserria utzi beharko dutela. Hori ikusten da, baita ere, EHNE eta UAGNren estatuko erakundeetan. EHNE COAGen dago, hau da, erakunde progresistean. UAGN, berriz, ASAJAn sartuta dago. Zer da ASAJA? Argi eta garbi, nekazaritzako patronala da eta bertan Andaluziako kortijoetako jauntxoek agintzen dute. Gaur ikusiko balute UAGNko nekazariak Madrilan zer defenditzen duten Do-

mecq eta bere lagunek, jabetuko liriteke ez dutela zerikusirik hemengo nekazarien beharrekin.

EGUNKARIA.— Nafarroan indar handiagoarekin sartzeko zenbait gauzari —Euskal Herriaren erreferentzia, euskararen erabilera...— uko egin beharko dio EHNEk?

PETRIRENA.— Zenbait lekutan ('Diario de Navarra') saldu da EHNEren azken batzarra izan dela «EHNEren aldaketaren batzarra». Horrelako interpretazioak egiten ari dira, baina EHNEk ez du bere linea sindikala kaketx bat ere aldatu. Gertatzen dena da EHNE denen ahoan dagoela orain eta bakoitzak bere errotara eramana nahi duela EHNEren ura. EHNE zena da. Euskal konfederazioan gaude eta ez daukagu inongo asmorik hori aldatzeko. Gainera, konfederazioan egon arren, Nafarroan geure buruaren jabe gara. Bilbotik ez digu inoiz inork esaten zer egin behar dugu. Ez dugu uste hori traba izan daitekeenik. Euskararen erabilerari dagokionez, EHNEk asko erabiltzen du eta lehengo eguneko batzarren, Nafarroako batzar batean erabil daitekeen adina erabili zuen eta aurrera horrela egingo du.

EGUNKARIA.— Badirudi UPNk agintea hartu zuenetik Nafarroako Gobernuarekiko harremanak hobetu egin direla. Baina zertarako balio du horrek Gober-



EHNE-Nafarroak Iruñeko Carmen kalean du egoitza.

JOXE

nuak aurrekoaren politika berbera egiten badu?

PETRIRENA.— Guk UPNren Gobernuari errekonozitu diogu, bakar-bakarrik, gurekiko gutxieneko arau demokratikoak gorde dituela. Hau da, Nafarroako nekazari erakundeen pluralitatea onartu duela. Aurreko Gobernuak ez zuen hori errekonozitzen, erabat baztertzen gintuen eta orain erakunde normal bat bezala gabiltza. Hori eskertzen diogu eta kitto. Hortik aurrera, argi esaten dugu ez dagoela Gobernuak azaltzen dituen asmo onekin pareka daitekeen errealtaterik. Beraz, EHNEk ez du bere listoi erreibindikatioa jaitsi.

EGUNKARIA.— Itoizko urtegia zela eta, Lapazaran bi nekazaritza mota defenditu zituen: jendea baserrian mantentzeko balioko duena bat eta errentagarria izango litzatekeena bestea. Lehena mendialdekoa izango litzateke. Zer esan nahi du horrek: etsi eta irautearekin konformatu behar duela mendialdeak, errentagarritasunaz ahaztuta?

PETRIRENA.— Beno, jarrera hori ez da EHNErena eta aurrera estu-estu hartu beharko diogu Lapazarani, ea nondik doan gai horrekin. Bera hemen sartu zenean

esaten zuen «erregadio berriak zertarako? Lehengoak uzten ari dira eta». Horrelako gauzak esan ditu, baina orain badirudi zenbait aldaketa dagoela. Bestela ez zeukan lehengoan esan zuena esan beharrik. Badakizu UPN eta PSOE negoziatzen ari direla eta uste dugu PSOEek presio gogorra egingo zuela Itoizko urtegiarena mugitzeko. Bestalde, ez gatoz bat bi abiadurako nekazaritzari buruz. Nekazaritzak bere funtzioa bete behar du goian, behean eta erdian. Arriskutsua da planteamendu hori.

EGUNKARIA.— Nekazari kopuruari eutsi behar zaiola dio EHNEk. Agintariak, berriz, konpetitiboak izateko kopurua gutxitu egin behar dela diote.

PETRIRENA.— Konpetitibitatearen kontu hori gezurra da. Esan dezatela behingoz konpetitiboak norekin eta nola. Marko bat ezarri digute; mugak kendu dizkigute, kanpotik sartzen ari zaizkigu produktu guztiak. European gu baino aurrerago dauden estatuen aldean konpetitiboak izatea eskatzen digute. Horrez gain, Hirugarren Munduko produktuak sartzen ari dira. Marko horretan konpetitibitatea gezurra da, ezin da konpetitu.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERDA

